

Akatsak zuzendu - Ariketak 1 (erantzunak)

Oharra!

Esaldi originala ahalik eta gehien errespetatzen saiatuko gara.

- Ez dut ezer ez nahi. → Ez dut ezer ere ~~ez~~ nahi.

Kasu honetan, ERE partikula ez dugu gehituko hori ez baita akatsa.

- Udararte ez ditugu oporrik hartzen. → *Udara arte* ez *dugu* oporrik hartuko.

Honetan, *hartzen* egokia da, urtero egiten dugun zerbait izan daitekeelako. Beraz, benetako esanahia edo intentzioa gordeko dugu.

1. Bihar, ~~maiatzak~~ *maiatzaren 6a(n)/maiatzak 6*, Karmeleren urtebetzea da. Noiz?
~~Maiatzak~~ *Maiatzaren 6an. Erosien* Erosiko diogu opariren bat?
2. Ez ~~ditut~~ *dut* lagunik, horregatik nago bakarrik ~~patio-orduan~~ *jolas-orduan*.
3. Londreseko Dorrea oso ~~hurrun~~ *urrun* dagoela esan digu irakasleak klasean.
4. Xabierrek kaleratu duen liburuak kritika onak jaso ditu.
5. ~~Astebururarte~~ *Asteburura arte* ikasten egon behar dut, astean zehar gutxi ikasi dudalako.
6. Ez ~~dauzkazu~~ *daukazu* txanponik eta orain ezin duzu *napolitana (zehatz bat)/napolitanarik (orokorrean)* okindegian erosi.
7. Jon, ez dut mugikorra topatzen... ~~deitzen~~ *deituko* didazu (deitu aditzaren *didazu* eta *nauzu* onartzen dira), mesedez?
8. Mikeli kalte gehien drogak egin zion.
9. Aurrez-aurre egon ziren eserita tranbian eta ez ziren konturatu ere ~~ez~~ egin.
10. Nekatutak daude, ~~naiz~~ *nahiz* eta mendirik ez ~~dituzten~~ *duten* igo.
11. Euria egin zuen atzo eta plisti-plasta ibili dira umeak putzuetan.
12. Gu, gazteok, ez dugu ezer ~~ez~~ ikasten!
13. ~~Egiten~~ *Egingo* didazu mesedetxo bat, mesedez?
14. Xabier eta Jon izan dira. Gure kuadrilako ~~akek~~ esan digute.

15. Kotxe ~~berdinean~~ berean etorri gara, horrela ez dugu hainbeste ~~kutSatu~~ (ekintza amaitu da, eta baieztapen modura aurkezten dugu)/~~kutSatzen~~ (orokorrean hitz egiten, ohikoa den gauza)/~~kutSatuko~~ (etorkizunera begira).
16. ~~Bapatean~~ Bat-batean argia joan da etxean.
17. Arin-arin joan zen mateko azterketako tokia aukeratzera.
18. ~~Abendurarte~~ Abendura arte ez dugu ~~Gabonetako~~ zuhaitza muntatzen (urtero-urtero horrela egiten dugu. *Muntatuko*: etorkizunera begira, hori da gure asmoa)
19. Ez da bihar etorriko, medikura~~re~~nera doa.
20. Ez baduzue hori egiten, gero arazoa izango duzue.
21. ~~10:26etan~~ 10:26ean ikusi nuen kalean.
22. Etortzen ikusi ~~nien~~ nuen eta asko poztu nintzen.
23. Rosatik~~re~~netik nator, horregatik heldu naiz berandu Amaia.
24. Ez duzu ezer ~~ez~~ egin gaurko orduan!
25. 19:45~~etan~~ean jaitsi gara autobusetik.
26. Etxean ogitartekoa ahaztu dut eta aitak ekarri dit ikastolara. (zuzena da)
27. Amaren urtebetetzea ~~M~~martxoan da.
28. Ezetz asmatu zenbat egin duen Xabik lanean? Horixe! Ezer ~~ez~~!
29. ~~H~~orain ~~g~~Gabonetako oporrak datoz.
30. Ez dut aita zoriondu, gorrotatzen ~~naiz~~ dut neure burua.
31. ~~30/10/2015~~ 2015/10/30a da gaurko data.
32. Aizu, ez ~~diezu~~ duzu ikusi Ane~~ri~~? Ez ~~diot~~ dut aurkitzen!
33. Pazientzia ~~aske~~ handia behar da lanpostu horretan lan egiteko.
34. Ez baduzu norekin joan, neuk eramango ~~dizut~~ zaitut!
35. Gogoak~~-ditut-~~ dut oporretan joateko!
36. Kaletik topatu ~~dugu~~ elkar eta agurtu ~~didazu~~ nauzu.
37. Ez du merezi ~~pena~~, hobe dugu etxean egon.
38. ~~Amonarantz~~ Amonarengana noa bisita egitera!
39. Jesusek ekarri du fotokopia, ~~ere~~ Mariak ~~ere~~ bai?

40. Eta ~~guzti heri-hori~~ **guztia** egin behar dugu etxean?